



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2006ko azaroaren 28a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:03 **AMAIERA-ORDUA:** 19:43

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian
Aranburu, Martxiel Genoba Solabarrieta, Asier Yeregi
Campos, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue
Mujika, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Rodriguez
Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Eneko Olariaga Arruti eta Ainhoa Leunda San Sebastian, herritik kanpo daudelako, arrazoi ezberdinengatik.



Aztergai zerrenda

1. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko irailaren 26ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, 2007ko urterako taxi zerbitzuaren hiriko tarifen igoera.
3. Onartzea, egoki bada, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 4/2006 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Onartzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
5. Onartzea, egoki bada, Orioko udal etxebizitza tasatuen Ordenantza Arautzailea.
6. Onartzea, egoki bada, Orioko udalerrian SENDIAN programaren ezarpenerako eta garapenerako protokoloaren ekintza, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.
7. Onartzea, egoki bada, Urola Kosta Udal Elkartearen eta Orioko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren testua, Eskolako Agenda 21 2006-2007 programa finantzatzeko eta Alkatetzari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.
8. Onartzea, egoki bada, Deklarazio Instituzionala, azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.
9. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO IRAILAREN 26KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2006ko irailaren 26ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

2.ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO URTERAKO TAXI ZERBITZUAREN HIRIKO TARIFEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko azaroaren 13an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

ONARTZEA auto-taxi zerbitzuari 2007ko urteari dagozkion hiri tarifan igoera, aldeztatik Urola Kostako TAXI-aren Eskualde Batzordearen oniritziarekin, **EMILIO FERNANDEZ HIDALGO** Jaunak eskatutako terminu beretan, **GIPUZKOAKO TAXIAREN ELKARTEAREN** Lehendakari gisa, udal bulegoetan sarrera data 2006ko urriaren 10a eta sarrera zenbakia 1243 duen idatziaren bidez.



3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 4/2006 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostenaren eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko azaroaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldatetarako 4/2006 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean, 2.031.720 €-ko kopuruan.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatza-kideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udal Plenoa.



Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO – I. FASEA –” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak 2006ko azaroaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

1. **ONARTZEA** “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presazko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
2. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren azalpena:



Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1.Fasea - obrak, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

b) Exekuzio epea: Epea, gehienez, 4 hilabetekoa izango da.

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

a) Tramitazioa: Presazkoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

382.612,67 euro, BEZa barne. Lizitatzailerik hobe dezakete kopuru hori.

5.- Garantiak.

Behin-behinekoa: 7.652,25 euro.

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Kontratataren sailkapena.

- Taldea C, azpitaldea 4, kategoria b.

- Taldea I, azpitaldea 6 eta 9, kategoria .

- Taldea K, azpitaldea 7, kategoria b.

8.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. DONOSTIA.

9.- Eskaintzak aurkezteko.

a) Epea: 13 egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailertzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.



10.- Eskaintzen irekiera.

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

5. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak 2006ko azaroaren 27an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udal etxebizitza tasatuen Ordenantza Arautzaileari.

Erregimen Lokaleko Oinarrien Arautzaile den Apirilaren 2ko 7/1985 legeko 49 artikuluan ezartzen dena betez, herria jakinaren gainean jartzen da interesatu orok 30 lanegunetan zehar, iragarki hau Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bere erreklamazio eta oharrak egin ditzan Udalbatzarraren aurrean.

Adierazi Udal Ordenantza interesatuen eskuerara egongo da Udaletxeko Idazkaritzan lanegun guztietako lanorduen barne.

Aldi berean adierazten da akordio horri buruz adierazi epean zehar ez bada ez erreklamaziorik ez oharririk egiten behin betiko onartutzat joko dela adierazitako Udal Ordenantza.



6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIAN SENDIAN PROGRAMAREN EZARPENERAKO ETA GARAPENERAKO PROTOKOLOAREN EKINTZA, ETA ALKATETZARI AHALMEN OSOA EMATEA ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA HITZARMENA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Gizarte-Ongizate eta Osasun Batzorde Informatzaileak 2006ko irailaren 27an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko udalerrian SENDIAN programaren ezarpenerako eta garapenerako protokoloaren ekintza, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.

7. ONARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTA UDAL ELKARTEAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN TESTUA, ESKOLAKO AGENDA 21 2006-2007 PROGRAMA FINANTZATZEKO ETA ALKATETZARI AHALMENA EMATEA HITZARMENA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak 2006ko azaroaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

ONARTZEA Urola Kosta Udal Elkartearen eta Orioko Udalaren arteko lankidetzaren testua, Eskolako Agenda 21 2006-2007 programa finantzatzeko eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.



8. ONARTZEA, EGOKI BADA, DEKLARAZIO INSTITUZIONALA, AZAROAREN 25EAN EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

ONARTZEA Deklarazio Instituzionala, azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

Deklarazio instituzionalak hitzez hitz honela dio:

“DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

Azaroak 25- Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

“Emakumeenganako Indarkeriaren” definizio berriari esker, azken urteotan funtsezko aldaketa izan da; izan ere, zenbait emakumek jasandako tragedia pertsonal gisa eta, beraz, tragedia pribatu gisa hartua izatetik, drama sozial legez identifikatzera igaro da, giza eskubideen urraketa onartezina.

Honako honek eragin du hori: pixkanaka ulertzen goaz emakumeenganako indarkeria emakumeen desberdintasunean oinarritutako ordena sozial baten adierazpena dela; horrek, izan ere, paper desberdinak esleitzen dizkie pertsonen sexuaren arabera, eta emakumezkoa denari balioa kendu eta gizonezkoenaren azpian jartzen du.

Beraz, Tokiko Gobernuak argi izan behar dugu, emakumeenganako indarkeria saihestu nahi badugu, aurrera egin behar dugula emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz.

Baina, aldi berean, tokiko esparrutik, eraginkortasunez lagundu behar diegu etxean tratatu txarrak, sexu erasoak edo indarkeria sexistaren beste edozein era



jasaten dituzten emakumeei. Zentzu horretan, uste dugu ezin dugula bakoitzak bere aldetik eta modu partzialean jardun egiturazkoa eta dimentsio askotakoa den fenomeno baten aurrean; izan ere, jarrera sendoa hartu behar da eta agerian utzi behar da arazo honen garrantziak erantzun instituzional eta sozial oso eta koordinatua eskatzen duela.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko.”

9. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, eta publikoan zeuden batzuek hitza hartu ondoren, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hiru minutu izanik, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen **ONTZAT EMANAREKIN**.

ALKATEA

IDAZKARIA